

HAMAIKAGARREN ORDENANTZA FISKALA

UDAL HILERRIKO ZERBITZUAK ESKAINTZEAGATIKO TASA.

I.- IZAERA ETA ARRAZOIA.

1. Artikulua.-

Bizkaia Lurralde Historikoko 5/89 Foru Arauak, ekainaren 30ekoak, horrek arautzen baititu Toki Ogasunak, emandako ahalmenak erabiliz, Udal honek Udal Hilerriko zerbitzuak eskaintzearen gaineko Tasa dauka ezarrita, eta hori Ordenantza Fiskal honek arautuko du.

II. ZERGAPEKO EGITATEA.

2. Artikulua.-

Tasa honek Udal Hilerriko zerbitzuak eskaintzeari dagokion zergapeko egitatea zergapetzen du, honako hauek bezala:

- a) Ehorzketa eta lekualdatzeak
- b) Ehorzketa partikularretarako lursail-partzelen lagapena, (ormaune eta hezurtokiak barne direla).
- c) Hilerriko funtzionarioek eskainitako zerbitzuak.
- d) Hala nola, hildakoen Sanitatea zaintzeko Poliziaren Erregelamenduan aurrikusitakoaren arabera egoki izan daitekeen beste edozein, edo alderdi baten eskariz baimentzen direnak.

III. SUBJEKTU PASIBOA.

3. Artikulua.-

Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, lagapenaren baimena edo zerbitzu-eskaintzearen eskaria egin dutenak, eta bere kasuan, baimenaren jabe diren titularrak.

IV. ARDURADUNAK.

4. Artikulua.-

1.- Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arauak aipatutako pertsona fisiko eta juridikoek, subjektu pasiboek dituzten zerga-obligazioen gainean, solidarioki erantzungo dute.

2.- Ordezko erantzunkizuna iznago dute, bai sozietateetako administratzaileek, bai sindikoek, bai porroterako, lehiaketarako, sozietateetako eta orokorrean edozein entitateetako kontuhartzaile edo kitatzaileek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arauean adierazitako kasu eta eskumenetan.

V. SALBUESPEN SUBJEKTIBOAK.

5. Artikulua.-

Eskainitako zerbitzuak salbuetsirik egongo dira kasu hauetan:

- a) Baliabide ekonomikorik ez duten onuradunek, hala ere horretarako, aurretik eskaria egin beharko da, eta udaleko gizarte zerbitzuek aldeko txostena egin beharko dute.
- b) Udalerrian hildako gorpuen ehorzketa, baldin eta horien helbidea ezezaguna izan, eta baliabide ekonomikorik ez balute.
- c) Agintari Judizialek agindu ditzaketen ehorzketak.

VI. ZERGAREN KUOTA.

6. Artikulua.-

Zergaren tasa, hurrengo Tarifaren arabera izango da:

TARIFA

1.- EHORZKETA ESKUBIDEA: EHORZKETA ETA BERREHORZKETA (TRENKADA BARNE DELA)	
A).- Panteoietan	75,60
B).- Hilobietan	36,70
C).- Horma-hilobietan	
C.1) 4 puntutan eutsitako nitxoan.	27,00
C.2) Beira-arasadun edo kristalezko plakadun nitxoan.	91,90
D) Errautsak lurperatzea.	
D.1) Kristal osteko nitxoan.	--
D.2) 4 puntutan eutsitako nitxoan.	27,00
D.3) Plaka edo porlanezko mortero atzeko nitxoan.	91,90
D.4) Panteoiko apalean, itxiturarekin.	75,60
D.5) Panteoiko apalean.	--
2.- <u>LAGAPENAK:</u>	
A) PANTEOIETARAKO lurra (m ² edo zatikia).	304,80
B.1) 15 urteko aldirako HILOBIA	344,80
B.2) Hilobi-lagapena luzatzea, 8tik 15 urtera	160,00
C.1) Ehorzketa indibidualako HORMA-HILOBIA, 15 urtekoa	558,90
C.2) Ehorzketa indibidualerako, zabalera BIKOITZEKO HORMA-HILOBIA, 15 urtekoa	1.118,90
C.3) Ehorzketarako HORMA-HILOBI indibidualaren lagapena luzatzea, 8tik 15 urtera.	129,70
C.4) Ehorzketarako zabalera bikoitzeko HORMA-HILOBI indibidualaren lagapena luzatzea, 8tik 15 urtera.	261,60
D.1) Gorpuzkien horma-hilobiak, 50 urterako	287,50
D.3) Gorpuzkien horma-hilobi handiaren lagapena luzatzea, 12tik 50 urtera.	35,60
D.4) Gorpuzkien horma-hilobi txikiaren lagapena luzatzea, 12tik 50 urtera.	35,60
3.- <u>BESTERENGANATZEAK:</u>	
A) 1. eta 2. Ahaidetasun maila.	25,90
B) GAINERAKO MAILAK	58,30
C) PARTIKULARREN ARTEKO BESTERENTZEEN ERREGULARIZAZIOA:	
Udalak partikularren artean transmisioak arautzeari ekiten badio, hain zuzen ere horretarako Udal Hilerriko Arautegian aurreikusita dauden kasuen arabera, hurrengo tasak sortuko dira: “99 urterako” emanak dauden panteoi, horma-hilobi edo hobien transmisioa arautzeari dagokionez:	

zenbatekoa hurrengo formula aplikatetik ondorioztatzen dena izango da: $T = \left(\frac{P}{99} \right) * N$ Non: - “T” = Aplikatuko den tarifaren zenbatekoa. - “P” = Panteoi edo hobientzako lurra lagatzeatik dagoen tarifaren zenbatekoa, edo “99 urterako” horma-hilobien lagapenagatik dagoen tarifaren zenbatekoa, erregulatzea eskatzen den unetik, eta zenbatekoak hurrengo hauek dira:	
Panteoientzako lursaila lagatzea, m2 edo zatikiko	304,80
Ehorzketa indibidualeko horma hilobiaren lagapena, 99 urterako	1.224,80
Ehorzketa indibidualeko, zabalera bikoitzeko hormagunearen lagapena, 99 urterako	2.450,70
- “N” = Emakida amaitu arte geratzen diren urte osoen kopurua. Ondorio horietarako, “P” Tarifa, “99 urterako” hilobientzako lursailaren lagapenari dagokiona, “betirako” panteoientzat lursaila lagatzeko “2. A)” epigrafean zehaztutako bera dela ulertzen da.	
4.- <u>MANIPULAZIOAK</u> (Eskari bidez):	
A) Legezko osasun-epea bete ondoren.	58,30
B) Kontratua iraungitzeagatik.	--

VII. SORTZAPENA

7. Artikulua.- Zergapetutako zerbitzuen eskaintzari hasiera ematen zaionean sortzen da tasa hau eta orduan jaiotzen da ordaintzeko obligazioa, ondorio horietarako, hasiera, haiek eskatzen direnean ematen zaiola ulertuko da.

VIII. HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

8. Artikulua.- Zergari buruzko hauste eta horien gaineko kalifikazioari dagokionez, hala nola horien gainean kasu bakoitzean jarri beharreko zehapenei buruz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Foru Arauean xedatua dagoena hartuko da kontutan.

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2008ko irailaren 25eko osoko bilkuran.)

(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2012ko azaroaren 19eko osoko bilkuran.)

(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2017ko urriaren 26eko osoko bilkuran.)